


Markiegi EAeko  
Ararteko izendatuko  
du bihar Eusko  
Legebiltzarrak / 6



Andoni Zubizarretak  
Valencian jokatu  
du datozen bi  
denboraldietan / 18



Paul Turner:  
«Ingelesak EEBBen  
ostean interesatu  
dira filmeaz» / 19

EUSKALDUNON

# Egunkaria

Asteartea, 1994ko ekainaren 28a / V. urtea / 1.101. zenbakia / Salneurria: 100 pta. / 5,5 libera

EKOLOGIA

## Errausketaren aurkako kanpaina

Hiri hondakin solidoen tratamendurako Erandion (Bizkaia) eraiki nahi duten errauskailuaren kontra kanpaina hasi dute osasun arloko langileek. / 8

## Kigaliko haur zaurituak besterik ezingo dituela salbatu dio Gurutze Gorriak

Ruandako Fronte Patriotikoko (FPR) gerrilari tutsiak gogor ari dira borrokan Kigali hiriburua kontrola bereganatzeko. Dagoeneko posizio estrategiko gehienak euren esku dituzte eta buruz buru ari dira tutsiak eta hutuak. Gurutze Gorriko iturriek

aditzera eman dutenez, borroka horietan «hainbeste dira zauritutakoak, ezen haurrak besterik ezingo ditugun salbatu», eta gairik ez dagoen beste erremediorik ez dutela. Hala ere, zailtasun handiekin izan bazen ere, bere ospitalean zeuden 45 zaurituak hiriburu kanpora ateratzea lortu zuten atzo.

Egoera oraindik gehiago okertuko delakoan, Nazio Batuek bertan behera utzi zituzten atzo bi fronteen artean harrapatuta dauden 300 zibilak bertatik ateratzeko aurikusitako operazio guztiak.

Bien bitartean, Ruandako hego-mendebaldean lanean jarraitu


zuten atzo 'Turkesa operazioko' soldadu frantziarrek. Parisko iturriek atzo jakinarazi zuten, orain arte ez dute erresistentziarik topatu, eta bertako herritarrek esku zabalik hartu dituzte. «Operazioko lehen helburua lortu dugu, mehatxupean zeuden herriak babesean jarri ditugu», azpimarratu zuen atzo Alain Juppe Frantziako Atzerri ministroak.

✓ Fronte Patriotikoko gerrilari tutsiak gogor ari dira borrokan Kigali hiriburua kontrola bereganatzeko.

Egunetik egunera okerrera doan egoera honi irtenbidea topatu nahian, Nazio Batuetako buruzagiak beste ne-

goizazio itzuli bati ekitekotan dira. Nairobin atzo jakinarazi zuten, egun hauetan saiatuko dira alde bietako buruzagiekin elkarriketatuta eta negoziazio mahaira biltzen.

Bestalde, Roger Etxegarai Joan Paulo II aita santuaren ordezkari lapurtarra atzo biltzekoa zen FPRko gerrilaren ordezkariekin egungo egoerari zein irtenbide eman dakioken aztertzeko. / 12



ANDER GILLENEA

## Negu Gorriak-en kontzertua Auzitegi parean

Negu Gorriak taldeak kontzertua eskaini zuen atzo Donostiako Auzitegiaren parean, Mikel Kazalis taldekidea soldadutzari uko egiteagatik epaitu behar zutelako. Kazalis baxu jolea eguerdian epaitu behar zuten baina bertara joan beharrean, taldekideekin batera, kamioi txiki bat Auzitegi parean aparkatu eta han bildutako ehundaka lagunei kontzertua eskaini zien argazkian ageri den kamioi gainetik. Kazalis intsumisioa ez zen epaiketara joan «erabiltzen ari diren errepresio selektiboa salatuz». Hamabost minutu iraun zuen kontzertuak eta tarte horretan trafikoa eten zuten eta ez zen istilurik gertatu. / 7

BESTERIK

POLITIKA

Gutunak trukatu dituzte HBk eta ETBko 60 langileren ordezkariak / 4

EKONOMIA

Euskal Okela ikurrak kalitatezko haragia ezberdindu du merkatuan / 10

ESTATUAK

Rubiok ez die batzordekideen zenbait galderei erantzun / 11

## Drogaren aurkako sarekada egin du Poliziak Frantzian

Frantziako Polizia Judizialak guztira 46 lagun atxilotu zituen atzo, ustez Kolonbiako droga sareetako dirua zuzituzte zutenak, eta 45 kilo kokaina harrapatu. Zanoto epailearen aginduz egindako operazio hori Paris, Limoges, Marseilla eta Montpellierren egin zen eta baita Estatu Batuetan eta Alemanian ere. / 11

## Hegoaldeko langileen laurdenek soilik sinatu dute lan hitzarmena

Hego Euskal Herriko langileen % 27k bakarrik sinatu dute oraingoz euren hitzarmen kolektiboa, ELA sindikatuak atzo emandako datuen arabera. EAeko eta Nafarroako 423.000 pertsonarengan du eragina negoziazioak, eta horietatik 116.000 langilek daukate sinatuta edo egokituta hitzarmenok. Iaz, epe honetan langileen % 64k zeukaten sinatuta hitzarmena.

Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiak esan zuenez, negoziaketak atzeratzen ari diren arazo

nagusiak krisi ekonomikoa, lan erreforma, enpresarien jokabidea eta sindikatuen batasunik eza dira. Elorrietaren kezka nagusia sindikatuen arteko batasun eza da eta batasun hori indartzea «ELA eta LABen lehentasuna» izango dela iragarri zuen.

Elorrietak aurtengo lehen sei hilabeteetako ekonomiaren egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen atzo ELAko Kontseilu Nazionalean, sindikatuko 116 kidek osatzen duten kongresuaren arteko organorik gorena. / 9

Gay eta lesbianen askapenerako nazioarteko eguna

GEHIGARRI  
erdiko orrialdeetan  
BEREZIA

IRUÑEKO ORFEOIAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU BIHAR IRUÑEKO GAIARRE ANTZOKIAN / 20